

Kanala

Adin guztietako pertsonentzat erraz erabil daitekeen web orri bat sortuko dugu, webgune hau IOSen eta Androiden erabil daitekeela ziurtatuko dugu. Gure web orrian deskontuak edo promozioak egongo dira bezeroak erakartzeko. Sare sozialetan aktiboki parte hartuko dugu gazteenengana hurbiltzeko, edukia aldizka argitaratuko dugu eta eduki publikoko sortzaileekin lankidetzan arituko gara, besteak beste, influencer-ekin publizitatea egiteko eta ekitaldiak antolatzeko. Mezu elektronikoen zerrenda bat egingo dugu eta email marketineko kanpaina eraginkorrak bidaliko ditugu. Mezuak gure bezeroen lehentasunen arabera pertsonalizatzen ditugu, gure bezeroak gehiago hurbiltzeko. Web orrian inkesta bat egingo dugu gure enpresari buruzko balorazioa eman ahal izan dezaten.

Web-orria ez ezik, denda fisikoak ere izango ditugu, Lehenengo, Madrilen jarriko dugu eta gero Esapinian zehar jarriko ditugu dena ondo badoa. Gure denda leku irisgarri eta ikusgarrian kokatuta dagoela ziurtatuko dugu. Kartel deigarriak erabiliko ditugu bertan eskaintzak eta sustapenak nabarmentzeko. Ikusizko seinaleek bezeroen arreta erakar dezakete. Gainera, lehen erosketa egin ondoren, kupoiak eman ditzakegu bezeroak gure dendetara itzul daitezen. Langile lagunkoiak kontratatuko ditugu, enpresaren produktuei buruzko informazioa dakitenak, horrela, bezeroak eroso sentituko dira eta itzuli egingo dira. ONGekin elkarlanean arituko gara, gure dendetan bezeroak donatu dezakete erabiltzen ez duten gauzak arropa, jolasak...) eta gu behar duen gendeari emango diogu. Publizitatea egingo dugu kaleetan karteekin edo txartelak ematen eta sare sozialetan ezagunak diren pertsonekin lan egingo dugu. Hori asko lagunduko digo gazteak gure enpresa ezagutzeko. Bezeroek dendatik alde egitea erabakitzen dutenean, paper batzuk egingo dira, gure enpresari buruzko balorazioa egin dezaten.